



Zinexit

Elkarbizitzaranzko 4. Zine Erakusketa
4ª Muestra de Cine hacia la Convivencia



BILBAO2013
URRIAK 21-24 OCTUBRE

Golem Alhóndiga.
Sarrera Dohainik. Entrada Gratuita

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Euzko Jaurlaritzako Lehendakaria
Iñaki Lekunbeitzeko
Bilaketa eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

AURKEZPENA

Gobernu honen lehentasunetako bat da, elkar aurkitze sozialaren prozesua ahalbideratu, eta bakearen kultura, giza duintasuna eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako bizikidetzaren kultura sustatzea.


Konbentziturik gaude orain dela inoiz baino komenigarriago, bizikidetzaren alde egin, gure ideia, amets, printzipio, balore, eta nola ez, gure desadostasun eta kezkei buruz eztabaidatu eta hauek partekatzeko moduko gune sozial eta herritarrak sortzeko unerik egokiena. Beti ere, gizakien arteko desberdintasun eta guztien giza eskubideen errespetua kontutan hartuz.

Ez da zeregin erraza, beraz, gure esku dauden baliabide guztiak erabiliko ditugu, zinea, besteak beste. Hezi eta sozializatzeko tresna baliagarria dugu zinea. Zinearen bitartez, oraingo, iraganeko eta etorkizuneko, norbere eta besteen, banakako eta taldeen errealitate desberdinetara jotzen dugu, lkasi, irudikatu, hunkitu, amets egin eta hausnartu egiten dugu zinearekin.

Hortaz, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiko Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, urriaren 21 eta 24a bitartean Bilboko Alhódigako Golem zinemetan izango den Zinexit, Elkarbizitzaranzko IV. Zine Erakusketan parte hartzera gonbidatu eta animatzen zaituztegu.

Monika Hernando Porres

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaria



PRESENTACIÓN

Es una de las prioridades de este Gobierno hacer posible un proceso de encuentro social, y promover una cultura de la paz, una cultura de la convivencia basada en el respeto de la dignidad humana y los derechos humanos.


Estamos convencidos de que ahora más que nunca, conviene invertir en convivencia y generar espacios ciudadanos y sociales, en los que poder debatir y compartir nuestras ideas, nuestros sueños, nuestros principios, nuestros valores, y por qué no, también nuestras diferencias e inquietudes. Siempre desde el respeto a la diferencia y siempre desde el respeto a los derechos humanos de todas las personas.

No es una tarea sencilla, y vamos a tener que utilizar todos los recursos que estén a nuestro alcance, uno de los cuales es el cine. El cine es una potente herramienta educativa y socializadora. A través del cine, nos transportamos a diversas realidades, presentes, pasadas y futuras, propias y ajenas, individuales y colectivas. Con el cine aprendemos, imaginamos, nos emocionamos, soñamos y reflexionamos.

Por todo ello, desde la Secretaría General para la Paz y la Convivencia, a través de su Dirección de Víctimas y Derechos Humanos, os animamos e invitamos a participar en la IV Muestra de Cine hacia la Convivencia, Zinexit, que tendrá lugar los próximos días 21 a 24 de octubre en los cines Golem Alhóndiga de Bilbao.

Monika Hernando Porres

Directora de Víctimas y Derechos Humanos

Urriak 21 **19:15** 21 Octubre

Espainia / 2011 / 95'

AL FINAL DEL TÚNEL

España / 2011 / 95'

SOLASALDIA

Eterio Ortega, filmeko zuzendaria
Luis Aizpeolea, kazetaria
Filmeko partaide bi

**COLOQUIO**

Eterio Ortega, director de la película.
Luis Aizpeolea, periodista.
Dos personas protagonistas de la película.

ESTREINALDIA

Urriak 22 **19:15** 22 Octubre

ESTRENO

Aljeria, Frantzia / 2012 / 87' / Fikzioa

LE REPENTI

Argelia, Francia / 2012 / 87' / Ficción

SOLASALDIA

Lourdes Pérez, El Diario Vasco egunkariko zuzendariordea
Paul Rios, Lokarriko koordinatzailea
Gorka Ruiz, Bakeolako koordinatzailea

**COLOQUIO**

Lourdes Pérez, subdirectora de El Diario Vasco.
Paul Rios, coordinador de Lokarri.
Gorka Ruiz, coordinador de Bakeola.

ESTREINALDIA

Urriak 23 **19:30** 23 Octubre

ESTRENO

Euskadi / 2013 / 106' / Fikzioa

UMEZURTZAK

Euskadi / 2013 / 106' / Ficción

SOLASALDIA

Ernesto del Río, filmeko zuzendaria
Patxo Telleria, aktore protagonista
Itziar Atienza, aktore protagonista

**COLOQUIO**

Ernesto del Río, director de la película.
Patxo Telleria, actor protagonista.
Itziar Atienza, actriz protagonista.

ESTREINALDIA

Urriak 24 **19:15** 24 Octubre

ESTRENO

Danimarka, Norvegia, Britainia Handia
2012 / 115'**THE ACT OF KILLING**Danimarka, Noruega, Reino Unido
2012 / 115'**SOLASALDIA**

Fernando Armendariz Arbizu, Nazioarteko Amnistia

**COLOQUIO**

Fernando Armendáriz Arbizu, Amnistia Internacional.

AL FINAL DEL TÚNEL

Jatorrizko ideia/Idea original: Elías Querejeta
Gidoia eta Zuzendaritza/Guión y Dirección: Eterio Ortega
Ekoizle exekutiboa/Productor Ejecutivo: Alberto Rojo
Argazki Zuzendaria/Director de fotografía: Daniel Salas
Muntaia/Montaje: Fernando Pozo
Musika/Música: Pascal Gaigne
Partaidetza Berezia/Con la participación especial: Sabino Ayestarán, Cristina Sagarzazu, Maite Goizueta, Juan Karlos Ioldi, Edurne Brouard, Kepa Pikabea



Azkenaldi honetako gure historiarako oso garrantzitsua den film bat berreskuratuz emango diogu hasiera ZINEXIT 4ari: AL FINAL DEL TÚNEL, Eterio Ortega eta Elías Querejetak Euskadiko indarkeriari buruz zuzendutako trilogiaren azken filma.

Euskal "gatazkaren" ondorioekin zerikusia duten edo izan duten pertsonen zuzeneko lekukotasunekin, Teri Ortegak euskal erro nazionalisten gertuko begirada eratu eta eskaintzen dizkigun esperientzia, emozio eta ikuspuntuek sufrimenduaren amaiera eta bake, askatasun eta adiskidetzaren itxaropena sumatzen laguntzen digute. Hain zuzen ere, aldi berean izan ziren film honen estreinaldia eta ETAk borroka armatua uztearen komunikatua.

ELÍAS QUEREJETAREN HITZAK

"Pertsonaia bakoitza bizirik agertzen da kameraren begiaren aurrean. Bizimodu, zeregin, elkarrizketa eta paisaia desberdinak. Bizitzari buruzko bakoitzaren ikuspuntua osatzen duten kezka, tristura eta alaitasunak ahalik eta era zuzen eta hurbilenean jasotzen saiatzen gara. Eta lan honen barruan bada oroimen pertsonalari zein kolektiboari irekitako atal bat.

Kamerak ez dauka inolaz ere alde aurretiko lerradura politiko edo ideologikorik. Hortaz, alde aurretik inolako baloraziorik egin gabe jasotzen ditu bakoitzaren bidea egin duten hitz, oroitzapen eta egoerak.

Baina, bada lortu nahi duen zerbait, bizitoki duten paisaia betirako argituko duten bakea eta askatasuna lortzearen itxaropena."

Harremana: Idem4. www.idem4.com

Inicioamos ZINEXIT 4 recuperando un filme importantísimo para nuestra historia reciente: AL FINAL DEL TÚNEL, la última parte de la trilogía sobre la violencia en Euskadi realizada por Eterio Ortega y Elías Querejeta.

Con testimonios de primera mano de personas cuyas vidas giran o han girado en torno a las consecuencias del "conflicto" vasco, Teri Ortega construye una mirada cercana a las raíces nacionalistas vascas y nos ofrece un grupo de experiencias, emociones y puntos de vista que nos permiten vislumbrar el final del sufrimiento y las esperanzas de paz, libertad y reconciliación. Su estreno coincidió, más allá de azar, con el comunicado de ETA del abandono de la lucha armada.

HABLA ELÍAS QUEREJETA

"Cada uno de los personajes vive ante el ojo de la cámara. Distintas formas de vivir, distintos quehaceres, distintas conversaciones y distintos paisajes. Tratamos de alcanzar de la forma más directa y cercana posible las inquietudes, tristezas y alegrías que conforman un particular entendimiento de vida. Y dentro del desarrollo hay también una parte abierta a la memoria tanto personal como colectiva.

Lo que en ningún caso tiene la cámara es un previo desplazamiento político o ideológico. Por tanto, recoge sin ninguna valoración previa aquellas palabras, recuerdos y situaciones a través de las que camina.

Lo que sí persigue es la esperanza de que la paz y la libertad iluminen para siempre el paisaje en el que mueven sus vidas."

Contacto: Idem4. www.idem4.com

LE REPENTI

Jatorrizko izenburua/Título original: El taaib (Le Repenti)

Zuzendaria/Dirección: Merzak Allouache

Gidoia/Guión: Merzak Allouache

Argazkia/Fotografía: Mohamed Tayeb Laggoune

Edizioa/Montaje: Sylvie Gadmer

ekoizlea/Productor: Jacques Bidou, Marianne Dumoulin

Aktoreak/Intérpretes: Nabil Asli, Adila Bendimered,

Khaled Benaissa

Harremana/Contacto: Doc & Film International



Hona hemen jasanezineko indarkeria azaltzen duten elipsis, isilune eta erdizkako aurpegierez osatutako oso film zuzena. Elurtzan lasterka, herri batera doala aurkituko dugu Rachid. Han beso zabalik hartuko du familiak eta heriotza mehatxuez ingurukoek. Nerabe aurpegia duen gazte hau auzoa sarraskitu zuen aljeriar gerrillako partaide zen. "Barkamena eta nazio-adiskidetasun legea" kurreikusitako amnistiari etekina atera nahi dio (...) Le Repenti-k dakartzan albisteak ez dira onak: gogortasun eta duintasunez iragartzen dira, eta entzun egin behar dira. (Sotinel, Thomas, Le monde, 09/04/2013)

MERZAK ALLOUACHE ZUZENDARIAREN HITZAK

"Karikatúra ez den terrorista bat agertzen saiatu naiz. Plano zabalak erabiliz hurbildu natzaio, haren isilunetara, emozioz beteriko haren begi distiratsuetaraino. Ez da uste bezain erraza. Pertsonaiak lausoturik jarraitzen du, antzeztu egiten du, ez da zehatza. Ez dakigu benetan damaturik dagoen."

"Elipsi askorekin, thriller baten antzera dago muntaturik filma. Ez da berehala klaberik ematen eta alde zurretik ere ez dugu jakingo zertaz ari den."

"Aljeriarrek inoren laguntzarik gabe eta oso denbora luzez elkar hil, sarraskitu eta bizirik larrutu zuten. Milaka biktima izan dira, batzuk erbesteratu egin ziren, beste askok oroimena galdu zuten, e.a. Eta orain dena gelditu eta ahaztu egin behar omen da! Ezinezkoa da. Hauxe da mahaigaineratzen dudana galdera bakarra."

Iturria: www.cineuropa.org

He aquí una película muy directa, hecha con elipsis, silencios, gestos esbozados, que sin embargo expresan una insoportable violencia. Descubrimos a Rachid corriendo en la nieve, yendo a un pueblo. Allí es recibido con los brazos abiertos por su familia y por las amenazas de muerte de su entorno cercano. Este joven con rostro de adolescente formaba parte de la guerrilla argelina que masacró la aldea. Quiere beneficiarse de la amnistía prevista por la "Ley de perdón y concordia nacional" (...) Las noticias que trae *Le Repenti* no son buenas: se anuncian con rigor y dignidad, y deben ser escuchadas. (Sotinel, Thomas, Le monde, 09/04/2013)

HABLA EL DIRECTOR: MERZAK ALLOUACHE

"Trato de mostrar a un terrorista que no sea una caricatura. Me acerco a él con planos amplios, en sus silencios, hasta sus ojos brillantes de emoción. No es tan fácil como parece. El personaje permanece borroso, interpreta, no es preciso. No sabemos si está arrepentido de verdad."

"La cinta está montada como un thriller, con múltiples elipsis. No se dan las claves de inmediato ni sabemos de antemano de qué trata."

"Los argelinos se mataron entre ellos sin ayuda de nadie, se masacraron, se despellejaron vivos y durante mucho tiempo. Ha habido miles de víctimas, muchos se exiliaron, otros tantos perdieron la memoria, etc. ¡Ahora resulta que todo se para y que hay que olvidar! No es posible. Esa es la única pregunta que planteo."

Fuente: www.cineuropa.org

UMEZURTZAK (Los huérfanos)

Zuzendaria/Dirección: Ernesto del Río

Gidoia/Guión: Juan Bas

Ekoi zle exekutiboa/Productor Ejecutivo: Mikel Aranburuzabala


Argumentua/Idea Argumental: Luis Eguiraun, Ernesto del Río

Argazki Zuzendaria/Director de fotografía: Ibon Antuñano

Edizioa/Montaje: Jon D. Dominguez

Musika/Música: Álvaro Segovia

Aktoreak/Intérpretes: Itziar Aienza, Patxo Tellería, Amaia Iraundegi, Jorgen Murua, Carmen San Esteban, Joseba Apaolaza



Alicia epailea da, duela 27 urte ETAk hil zuen bere aita bezala. Orain Ricardo senarrarekin bizi da Bilbo inguruko urbanizazio batean. Ondoko etxean, bikoteak oso lagun duen Rosa bizi da Maria alaba nerabearekin. Honek harreman gatazkatua hasi berri du, ETAko kide izandako aitarekin auzo txiro batean bizi den Andoni gaztearekin. Sei pertsonaia hauek elkarren aurka arituko dira, egungo zein iraganeko gertakariak horretara eramanez, eta denengan eragingo du umezurtz ez ote direnaren sentipenak.

ERNESTO DEL RÍO ZUZENDARIAREN HITZAK

Umezurtzak filma joan den mendeko 80ko hamarkadan izandako ekintza terrorista batekin hasi eta 2012an amaitzen da elkarrekin maiteminduko diren gazte birekin, kausa eta ondoriozko katea gorabeheratsua. Edozein ideologiaren zerbitzura jarritako indarkeriaren atzean, osatzeko denbora behar duen biktimen zauria dagoela esatera datorkigu filma. Garrantzitsuena aukera bera ez deseuztatzea da.

Gehiegi atzeratutako elkarrenganako onarpenaz ari gara, hiltzaile izandako bat eta berak hildako gizonaren alabaren artekoaz. Biak arituko dira aurrera egiteko ahaleginean, eta elkarrekin saiatu beharko dute, oraintxe bertako gazte bik, nork bere akatsekin, ez dietelako beste aukerarik emango.

Harremana: www.sendejafilms.com

Alicia es jueza, como lo fue su padre, asesinado por ETA hace 27 años. Hoy vive con su marido Ricardo en una acomodada urbanización de las afueras de Bilbao. Al lado residen Rosa, gran amiga, y su hija Maria, una adolescente que acaba de iniciar una conflictiva relación con Andoni, un chaval parecido a ella que vive con su padre Antonio, antiguo miembro del grupo terrorista, en un barrio humilde. Seis personajes que se verán arrastrados por una misma corriente de acontecimientos, tanto presentes como pasados, hasta hacer aflorar en todos ellos un sentimiento compartido de orfandad.

HABLA EL DIRECTOR: ERNESTO DEL RÍO

Umezurtzak / Los huérfanos se abre con un acto terrorista en los 80 del siglo pasado y se cierra con dos jóvenes que se enamoran en 2012, una azarosa cadena de causas y consecuencias. Esta película se propone mostrar que detrás de la violencia puesta al servicio de tal o cual construcción ideológica hay una herida, la de las víctimas, que puede tardar mucho en cicatrizar. Lo importante es que no se desvanezca la posibilidad misma.

Se trata de un reconocimiento mutuo largamente demorado, el de un antiguo asesino y el de la hija del hombre al que mató. Ambos van a luchar por salir adelante y van a tener que hacerlo juntos porque dos jóvenes de ahora mismo, con sus propios errores a cuestas, no van a dejarles otra salida.

Contacto: www.sendejafilms.com

THE ACT OF KILLING

Zuzendaria/Dirección: Joshua Oppenheimer
Zuzendari laguntzaileak/Co-directores: Christine Cynn, Anonymous
Ekoizlea/Productor: Signe Byrge Sørensen
Argazkia/Fotografía: Carlos M. Arango de Montis, Lars Skree
Edizioa/Editores: Niels Pagh Anersen, Janus Billeskov Jansen, Mariko Montpetit, Charlotte Munch, Bengtsen, Ariadna Fatjó-Vilas
Musika/Música: Elin Øyen Vister
Aktoreak/Intérpretes: Anwar Congo, Herman Koto, Syamsul Arifin, Ibrahim Sinik

1965an, Suharto diktadorearen indonesiar gobernua komunismoaren aurkako jazarpena egin zuen asiar herrialde honetan milioi bat hildako utziz. Sarraski horiek, inolako ideologiarik gabeko mertzenario eta gangster taldeek burutu zituzten.

The Act of Killing filmeko zuzendariak, hilketak horietako agerraldia batzuk film baterako bertsiozko eskatuko die euren inguruan heroi diren horietako batzuei eta produkzio prozesua grabatuko du, making of eran.

Eta zuzendariaren beraren hitzetan "beldurrezko erregimen batek nola irudikatzen duen bere burua" azaltzen digu.

Iturria: Agustí Alonso, G. rtve.es

JOSHUA OPPENHEIMERAREN HITZAK

Ez dut uste gaizkia denik mundua kontrolatzen duena, gizakia baizik. Haiek dira gaiztakeria egiten dutenak eta, existitu bitartean, horrela izango da beti. Filmean ikus dezakegunez borrarok gauza txarrak egin dituzte gizakiak direlako, eta hain zuzen ere, horregatik dakite zein den ongiaren eta gaizkiaren arteko desberdintasuna. Eta horregatik daude egindakoagatik oinazetsurik eta, ihes egiteko, euren buruari gezurra esaten diote justifikatu eta ospatuz.

The Act of Killing filmaren inguruan jendarteko eztabaida sortu nahi genuen jendea elkartu eta hari buruz hitz egiteko. Orain indonesiarrek euren iraganaz hitz egiten ari dira, Egiaren Batzorde bat, adiskidetzeko prozesu bat eskatzeko, baina, ezer baino lehen, egia jakiteko, hori gabe ezin baita adiskidetzetik izan.

Iturria: Nuria Rojas, eldiario.es

Harremana: Yedra Films. www.yedrafilms.com



En 1965, el gobierno indonesio del dictador Suharto llevó a cabo una persecución contra el comunismo que dejó un millón de víctimas mortales en el país asiático. Esas matanzas fueron perpetradas por mercenarios, por bandas de gánsteres sin inclinaciones ideológicas.

En The Act of Killing, su director pide a algunos de ellos, héroes en sus entornos cotidianos, que recreen escenas de esas ejecuciones para una película y graba el proceso de producción, a modo de *making of*.

Y nos muestra "cómo un régimen de terror se imagina a sí mismo", en palabras del propio director.

Fuente: Agustí Alonso, G. en rtve.es

HABLA EL DIRECTOR: JOSHUA OPPENHEIMER

No creo que sea el mal el que controla al mundo, sino los seres humanos. Ellos hacen el mal y, mientras existan, siempre será así. En la película puede verse que los victimarios han hecho cosas malas porque son humanos y, por eso mismo, conocen la diferencia entre lo que está bien y lo que está mal. Precisamente por eso se sienten atormentados por lo que han hecho y, para huir, se mientan a sí mismos justificándolo y celebrándolo.

Con The Act of Killing queríamos generar un debate público para que la gente pudiera reunirse y hablar sobre ella. Ahora los indonesios están hablando de su pasado, pidiendo una Comisión de la Verdad, un proceso de reconciliación, pero, primero que todo, la verdad, porque sin ella no puede haber reconciliación.

Fuente: Nuria Rojas en eldiario.es

Contacto: Yedra Films. www.yedrafilms.com

Antolatzailea / Organiza:

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Koordinatzailea / Coordina:



Laguntzaileak / Colaboran:

